

GOBERNU BATZARRA

2017.12. 04

Alkatea:	Tolosako Udaletxean, bi mila eta hamazazpiko abenduaren lauan, 08:00etan, Gobernu Batzarra bildu da ohizko bilera egiteko. Mahaiburua alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai-zerrendan agertzen diren puntuak tratatzeko.
Olatz Peon Ormazabal	
Zinegotziak:	
Patxi Amantegi Zubiria Nerea Letamendia Belloso Jokin Azkue Arrastoa Iñigo Alonso Sarasibar	1.- Aurreko akta onartzea.
	2.-Auzolana programaren esparruan pertsona errefuxiatuak hartzeko Tolosako Udalaren eta Cear Erakundearen arteko Lankidetza hitzarmenaren onarpen proposamena.
Idazkaria:	3.-Enplegu programarako deialdiaren aldaketa onartzea.
Begoña Garmendia Vazquez	
Kontuhartzaitza:	4.-65-66-67/2017 zenbakia duten faktura-zerrendak.
Ainhoa Molinos Zubiaurre	

1.- Aurreko akta onartzea.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2017ko azaroaren 27an egindako batzarraren akta aztertu eta aho batez onartu da.

2.-Auzolana programaren esparruan pertsona errefuxiatuak hartzeko Tolosako Udalaren eta Cear Erakundearen arteko Lankidetza hitzarmenaren onarpen proposamena.

Eusko Jaurlaritzak ekintza-esparru bat sortu du, errefuxiatuek sufritzen ari diren krisi humanitarioari erantzuteko.

Zentzu honetan, ezinbesteko ulertzen da krisi humanitario honek irauten duen bitartean ohiko harrera sistema sendotzea eta lan honetan autonomia-erkidegoek, aldundiek eta udalek hasieratik zuzenean esku hartu beharko dute harrera prozesuak kanalizatzeko.

Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubideen, Bizikidetzaren eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiak eta Espainiako Gobernuko Inmigrazio eta Emigrazioko Idazkaritza Nagusiak lankidetza prozesua martxan jarri zuten, nazioarteko babesa eskatzen eta jasotzen duten pertsonen harrera hobetzeko helburuarekin eta AUZOLANA proposamenean oinarrituta,

nazioarteko babesa eskatzen duten pertsonen eta bizikidetz-unitateen harrera kudeatzeko, Espainiako Gobernuak finkatutako eta kudeatutako harrera sisteman sartzen direnean.

Tolosako Udala, Eudelek egindako deialdiari erantzunez, AUZOLANA programan parte hartzen duen 7 udalerrietako bat da.

CEAR irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatua da eta erabilgarritasun publikokotzat jota dago. Eusko Jaurlaritzak eskatuta, nazioartean babes eskatzen duten pertsonen harrera kudeatzen du, Espainiako Gobernuak zehaztu eta kudeatutako harrera-sistema eskatzen badute, AUZOLANA programaren testuinguruan.

Horrenbestez, Ikusita Eusko Jaurlaritzaren esparru agiria, errefuxiatuek sufritzen duten krisi humanitarioari eman beharreko erantzun soziala, politikoa, erakunde artekoa eta sail artekoa modu konpartituan orientatzeko eta Auzolana proposamena (2017ko irailaren 4koa) eta Etxebizitza Zerbitzuko teknikariaren aldeko txostena kontutan izanda, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

E R A B A K I D U

LEHENA.- Onartzea Tolosako udalaren eta CEAR erakundearen arteko hitzarmena, AUZOLANA programaren barruan errefuxiatuak hartzeko, ondoren adierazten diren klausulen arabera:

Lehenengoa.- Hitzarmenaren xedea.

Hitzarmen honen xedea da zehaztea zein den dokumentu hau izenpetzen duten aldeek hartzen duten jarduera-eremua aipatutako kolektiboko kideen premiazko harrera kudeatzeko. Aipatutako kide hauek nazioarteko babesa eskatu duten pertsona eta bizikidetz-unitateak dira; zehazki, Espainiako Gobernuak ezarritako eta kudeatutako harrera-sisteman sartu eta AUZOLANA Programaren barruan daudenak. AUZOLANA programa Eusko Jaurlaritzak sustatu du, Giza Eskubide, Bizikidetz eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiaren bitartez, eta Espainiako Gobernuarekin adostuta dago, Immigrazio eta Emigrazio Idazkaritza Nagusiaren bitartez.

Harrera hori kudeatze aldera, Tolosako Udalak CEAR erakundearen eskuetan jarriko du I. eranskinean hasiera batean zehazten diren etxebizitzaren aldi baterako erabilera, horiek erabil ditzan, aipatutako kolektiboko kideei behin-behinean ostatu emateko, eta ez beste ezertarako.

Bigarrena.- Alderdien konpromisoak.

I. TOLOSAKO UDALAREN aldetik,

I.1- Tolosako Udalak, Hitzarmen honen xede diren etxebizitzaren gainean bakoitzak duen titulartasunaren arabera, ESKUERAN jartzen ditu, ALDI BATERAKO, eranskin batean hasiera batean zehazten diren etxebizitzak. Eranskin hori alderdiek erabaki bezala eguneratu ahal izango da, hizpide dugun kolektiboaren beharrak asetzen joateko.

I.2.- Hitzarmen honek 2 urteko indarraldia izango du, gehienez ere. Epe hori igarota, eta aldeek hala adosten baldin badute, beste bi urtez luzatu ahal izango da baldin eta bi aldeetako batek denuntziatzen ez badu.

I.3.- Nolanahi ere, etxebizitza bakoitza eskueran jartzea kontratu espezifiko eta indarraldi jakineko batean jasoko da. Kontratuaren indarraldiak lotura izango du CEARrek bizikidetza-unitate bakoitzerako ezartzen duen laguntza- eta babes-programarekin eta esku-hartzearekin.

I.4.- Tolosako Udalak agintzen du multiarriku-aseguru bat izango duela bere kontura izenpetuta, etxebizitzaren edukizailea eta etxebizitzaren barruan izan daitekeen edukia bermatzeko.

I.5.- Tolosako Udalaren kontura izango dira etxebizitza erabiltzeko moduan egon dadin egin beharreko obrak, bai eta Jabekideen Erkidegoko derramak eta gainerako konponketak —non ez zaizkien egotzi ahal lagapen-hartzaileak lerro hauen azpian bere gain hartuko dituen betebeharrei—, etxebizitza bakoitzaren OHZa eta banakako kontsumoekin loturarik ez duten komunitate-gastuak ere.

II. CEAR ERAKUNDEAREN ALDETIK,

II.1.- CEARrek aipatu den eskueran jartze hori onartzen du, arestian ut supra azaldutako baldintzetan, bakoitzari lagatzen zaizkion etxebizitzari dagokienez.

II.2.- CEARrek Hitzarmen honen xede diren etxebizitzak erabiliko ditu aipatutako kolektiboko kideen beharrak asetzeko, eta ez beste ezertarako, lehen klausulan zehaztu bezala (kideok nazioarteko babesa eskatu duten pertsona eta bizikidetza-unitateak dira; zehazki, Espainiako Gobernuak ezarritako eta kudeatutako harrerasisteman sartu eta AUZOLANA Programaren barruan daudenak; programa hori Eusko Jaurlaritzak sustatu du, Giza Eskubide, Bizikidetza eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiaren bitartez, eta Espainiako Gobernuarekin adostuta dago, Immigrazio eta Emigrazio Idazkaritza Nagusiaren bitartez).

II.3.- CEARrek agintzen du laguntza emango diela, Hitzarmena indarrean dagoen bitartean, hitzarmen honen xede diren etxebizitzak eskuratzeko aukeraren onuradun gertatzen diren pertsoneri.

II.4.- Aipatutako laguntza-programa nola garatzen den, halako epe jarriko dira eskueran etxebizitzak. Horrela bada, laguntza-programa noiz hasi eta noiz bukatzen den jakinarazi beharra dago berariaz, etxebizitza erabiltzeko lagapena azkentzeko, edo aldeek nahi dituzten luzapenak egiteko, halakorik nahi izanez gero.

II.5.- Era berean, CEARrek agintzen du ordaindu egingo duela etxebizitza bakoitzerako ezarritako prezioa, I. eranskinean zehaztutakoa, hirugarren klausulan azaldutako baldintzetan betiere.

II.6.- CEARrek bere gain hartuko du, baita ere, etxebizitza bakoitzeko horniduren eta zerbitzuen ordainketa, alde batera utzita erabiltzaileen kontura uzteko izan dezakeen eskubidea. Eskueran jartzeko epea bukatzean, egoki dakizkiokeen ordainketa guztiak

eginda entregatu beharko ditu etxebizitzak, maizterrik gabe eta jaso dituen kontserbazio-egoera berean. Horrek berekin dakar konponketa- eta berregokitze-gastuak ordaintzea, eta, oro har, erabilera-lagapen hau sinatzen den unean etxebizitzak zuen baldintza berean uzteko gastuak.

II.7.- CEARren kontura izango dira instalazioetan eragindako kalteengatiko gastu guztiak, bai eta instalazioak zaintzeko eta konpontzeko gastuak ere, baldin eta etxebizitzako maizterrek behar ez bezala jarduteagatik sortu badira.

II.8.- Ez CEARrek, ez Hitzarmen honetan emandako eskubidea erabiltzen dutenek ezin izango dute inolako obrarik egin etxebizitzetan, eta, horiek egitea ezinbestekoa izanez gero, CEARrek bere gain hartzen du TOLOSAKO UDALAREN aurrean, lagatako edozer etxebizitzetan egin beharreko egokitzapen-, mantentze- edo konponketa-obra egiteko baimena lortzeko obligazioa.

II.9.- CEARrek izenpetuta eduki beharko du zer ere aseguru-poliza eskatzen baita hizpide ditugun etxebizitzetarako adostu den xedearen berezko jarduera garatzeko; eta eska daitezkeen estalduren babesa izan beharko du, batez ere etxebizitzak erabili eta bertan bizitzearen ondoriozko Erantzukizun zibilari dagokionez.

Hirugarrena.- Prezioa eta ordaintzeko modua.

Pertsona juridiko baten aldeko esleipena denez gero, prezioa zehazteko, CEARrek urtean 9.000 euroko diru-sarrera duela jo da. Erabaki hori hartu da interes publikoa delako aipatutako kolektiboko kideentzako arretaren funtsa (kideok nazioarteko babesa eskatu duten pertsona eta bizikidetzak-unitateak dira; zehazki, Espainiako Gobernuak ezarritako eta kudeatutako harrera-sisteman sartu eta AUZOLANA Programaren barruan daudenak; programa hori Eusko Jaurlaritzak sustatu du, Giza Eskubide, Bizikidetzak eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiaren bitartez, eta Espainiako Gobernuarekin adostuta dago, Immigrazio eta Emigrazio Idazkaritza Nagusiaren bitartez).

Horrenbestez, I. ERANSKINEAN aipatutako etxebizitza-mota bakoitzari aplikatu beharreko araudian xedatutakoaren arabera kalkulatu da lagapen-prezioa. Tolosako Udalak hilean faktura bakar bat egingo du I. eranskinean aipatzen diren lagatako etxebizitzetan hileko prezio osoagatik. Aurrerago zehaztuko da hura zer bidetatik ordainduko den.

Laugarrena.- Hitzarmenaren Jarraipen Batzordea.

TOLOSAKO UDALAK eta CEAR ERAKUNDEAK solaskide bana izendatuko dute Hitzarmenaren Jarraipen Batzordea eratzeke, hari nolabaiteko egonkortasuna emango diona.

Hartara, 2 HILEAN behin bilduko dira, bilera arruntean, esperientzia nola garatzen ari den aztertzeke, Hitzarmenean jaso beharreko etxebizitza-beharrak eta etxebizitzetan bizi diren pertsonen datuak eguneratzeko eta, zuzendu beharreko disfuntzionalitaterik egonez gero, horiek zuzentzea xede duten neurri zuzentzaileak ezartzeko.

Nolanahi ere, beharrezkoa balitz, bi aldeetako edozeinek eska lezake Batzordearen bilera berezia egitea.

Bosgarrena.- Hitzarmenaren indarraldia

Hitzarmen honek 2 urteko indarraldia izango du. Epe hori igarota, bi urtez luzatu ahal izango da hitzarmena, urte bateko aldietan, baldin eta bi aldeetako batek hiru hilabete lehenago, gutxienez ere, denuntziatzen ez badu.

Seigarrena.- *Hitzarmenaren izaera eta araubide juridikoa. Hitzarmen honek izaera administratiboa du.*

Zazpigarrena.- *Hitzarmen honetan jatorria duten arazo edo gaztazkak ebazteko juridiskzio eskuduna administratzioarekiko auzietako epaitegia izango da.*

BIGARRENA.- Erabaki hau Tolosako Udaleko kontuhartzaitzari, CEAR elkarteari, eta Eusko Jarularitzako Giza Eskubideen, Bizikidetzaren eta Lankidetzako Idazkaritza Nagusiarek jakinaraztea.

3.- Enplegu programarako deialdiaren aldaketa onartzea.

Tokiko enpresek merkatu arruntean kontratatze laguntza programa eskatzeko prozedura arautzen duten oinarrietan, 6.2.6.puntuak zera dio:

“Oinarri arautzaileei publizitatea eman baino lehen, Lanbidearen Lan Aktibazioko Zuzendaritzari igorri behar zaizkio eta hasierarako baimena eskuratu behar da”

Hori dela eta, Lanbidearen Lan Aktibazioko teknikariari zuzendu zitzaizkion oinarri arautzaile horiek.

Tolosako Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak, 2017ko azaroaren 13an egindako bilkuran, besteak beste, ondoko ebazpen hauek hartu zituen:

- Lanbide-Euskal enplegu Zerbitzuak 2017 ekitaldirako Tolosa eskualdeko merkatu arruntean langabetuak kontratatze laguntza deialdia onartzea.
- Diru-laguntzak jasotzen dituen programa indarrean sartzea argitaratu eta hurrengo egunetik, bere garapena ez kaltetzeko helburuarekin.

2017ko azaroaren 27an, Deialdia, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen .

2017ko azaroaren 27an, Lanbideko arduraduna den Carmen Paz-ek, Tolosako Udalak bidalitako deialdia aztertu ondoren, hainbat aldaketa egin behar zirela proposatu zuen, Lanbidek hauek onartu ahal izateko.

Proposatutako aldaketak 5.,7. eta 1.eranskinei dagozkie:

5. puntan: eskatutako baldintzak jaistea proposatzen du.

7. puntuan erredakzio aldaketa eskatzen du eta 1. eranskinean emakumeen kontratazioak gehiago puntuatzea eskatzen du.

Puntu hauek guztiak Enplegu Departamentuak onartu egin ditu eta deialdia eguneratuta emailez igorri zaie Lanbidearen Lan Aktibazioko Zuzendaritzari. Bere iritzia jaso eta gero, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Lanbide-Euskal enplegu Zerbitzuak 2017 ekitaldirako Tolosa eskualdeko merkatu arruntean langabetuak kontratatzekeo diru-laguntzen deialdia aldatzea.

BIGARRENA.- Aurkezteko epearen luzapenari buruzko iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta 7 egun naturaleko epea izango dute hurrengo egunetik hasita.

HIRUGARRENA.- Deialdia, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

4.- 65-66- 67/2017 faktura-errendak.

Kontuhartzaitzak **65/2017** faktura-zerrenda aurkeztu du, **3.025,00** -koa, hain zuzen ere.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez, eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- **65/2017** faktura-zerrenda onartzea.

BIGARRENA.- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari.

.....

Kontuhartzailtzak **66/2017** faktura-zerrenda aurkeztu du, **329,94 €**-koa, hain zuzen ere.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez, eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

E R A B A K I D U

LEHENA.- **66/2017** faktura-zerrenda onartzea.

BIGARRENA.- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzailtzari.

.....

Kontuhartzailtzak **67/2017** faktura-zerrenda aurkeztu du, **265.369,65 €**-koa, hain zuzen ere.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez, eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

E R A B A K I D U

LEHENA.- **67/2017** faktura-zerrenda onartzea.

BIGARRENA.- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzailtzari.

Gai zerrendatik aparte eta daukan premia kontuan izanik, ondoren aipatzen den gaia tratatzen da:

Udal Idazkariak luzaturiko proposamena aintzat hartuz, Tokiko Gobernu Batzarreko kideek aho batez adostu dute Tolosako udalari zuzentzen zaizkion ondare-erreklamazioen kasuan, irizpide orokor gisa, eta akordiorik ez balego, espedienteak izapidetuko direla bere osotasunean.

Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo da 10:00etan.

ALKATEA

IDAZKARIA